



seme-alabak

7. alea / 7º número
2009ko Ekaina / Junio 2009
L.G.: SS-1023/07

Gurasoentzat aldizkaria / Revista para padres y madres
Ordizia - Beasain - Itsasondo - Arama - Altzaga

DROGA-MENDEKOTASUNeko PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE PREVENCIÓN DE DROGODEPENDENCIAS



✧ **0-5 URTE:**
ONDO LO EGITEA

✧ **6-11 URTE:**
GATAZKEN KONPONBIDEA

✧ **12-18 URTE:**
NORBERA: NERABEENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO PROGRAMA BAT


✧ **ZALANTZEN TXOKOA**

✧ **0-5 AÑOS:**
DORMIR BIEN

✧ **6-11 AÑOS:**
RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS

✧ **12-18 AÑOS:**
NORBERA: UN PROGRAMA PARA ADOLESCENTES Y FAMILIAS

✧ **EL RINCÓN DE LAS DUDAS**



ORDIZIAKO UDALA

BEAINGO UDALA

ITSASONDOKO UDALA

ARAMAKO UDALA

ALTZAGAKO UDALA

0-5 urte. Ondo lo egitea: haurren lo ohiturak erregulatzea



AINHOA MANZANO FERNÁNDEZ DOKTOREA
JUAN LUIS MARTIN AYALA DOKTOREA

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia

Haurrek helduek baino lo gehiago egin behar dute. Gauean lorik egiten ez badute edota atseden hartzen ez badute, laguntzeko gogo gutxirekin, haserre, eta humore txarrez altxatuko dira. Lo ezinbestekoa da garapen osasungarri bat izateko. Hori dela eta, lo egiteko ordua, familiaren eguneroko dinamiketan barnebildu behar den "ohitura" bat gehiago izan behar da.

"Lo ona" praktikan jarri ahal izateko, oinarrizko arau batzuk daude:

1. Giroak, lasaia eta iluna izan behar du.
2. Altxatzeko ordua eta oheratzekoa, egunero berdina izan behar du (gutxi gorabehera).
3. Logelako tenperaturak, erosoak izan behar du. Gehiegizko beroak edota gehiegizko hotzak, haurra gauetan itzartzea eragin dezake.
4. Oheratu aurretik, ez dezatela gehiegi jan ezta gutxiegi ere.
5. Helduen presentziarik gabe loak hartzen ikasi behar dute. Gomendagarria da kanpoko elementuez baliatzea (panpinak...), lasaiago lo har dezaten.
6. Oheratu aurretik (ordu bete arinago), jarduera fisiko gogorrik egin ez dezaten saiatu behar gara.
7. Luzatzen diren siestak edota beranduegi egiten diren siestak saihestu.
8. Siesta, haurrek 5 urte betetzen dituzten arte behintzat mantentzea gomendatzen da. Siestarik egiten ez badute, zurrerik, gauetan oso nekatuta egongo dira eta ondorioz, zailagoa izango zaie gau horretan loak hartzea.
9. Ohea lo egiteko soilik erabili behar dute, ez utzi bertan jolas dezaten, telebista ikus dezaten...
10. Beraien ohetan beti lo egin dezaten saiatu, beste leku batzuk saihestuz (sofan, gurasoen ohean).
11. Loak hartu aurreko orduetan, bizigarriak diren edariak ematea saihestu (koka-kola, kafea, tea...).
12. Jaterakoan lo geratzen direla ikusten baduzue, entretenitu, lorik hartu ez dezaten.
13. Ez eman somniferorik.

Bestalde, badaude haur batzuk gau osoan zehar itzartzeko joera dutenak:

Oheratzen direnetik edota loak hartzen dutenetik, itzartzen diren arte 30 minutu baino gutxiago pasatu direnean:

- Loaren trantsizio-aldiari egozten zaio.
- Arrazoiak honako ezaugarri hauekin harremantzen dira: itzartzen dira, negar egiten dute, gauzak eskatzen dituzte...
- Kasu hauetan jarraitu beharreko jarraibideak honako hauek dira:
 - 1.- Ez da ama edota aitaren presentziarik egon behar.

2.- Ez zaitezte beraiengana hurbildu, ez eskainik zuen arretarik.

3.- Haurrek eskatu arren, ez eman janik.

4.- Ez egin jaramonik eskatzen dizuetenari.

Arrazoiak, kasu hauetan, izaeraren kontua izaten da, edota lo egiteko kanpoko elementu baten beharra dutelako (panpin bat eman...).

Oheratzen direnetik edota loak hartzen dutenetik, itzartzen diren arte 60-90 minutu igarotzen direnean:

- Sonanbulismoaz eta gauetako izuek edota "Parasomina" (3 urtetik aurrera ohikoagoak dira) deiturikoez hitz egin beharko genuke.

- Mota honetako gaitzak dituztenean, haurrek modu honetako jarrerara azaltzen dute: erdi lo, higitu, begi-jauzkorrez, des-konektatuta...

- Honen arrazoiak: familiarik eratorritakoa, loaren erritmo aldatetak, ordu gutxiago lo egin izana edota gaixotasunengatik.

- Gehienetan, gauetako azaldura hauek garapen normalaren parte izan ohi dira.

Oheratzen direnetik edota loak hartzen dutenetik, itzartzen diren arte 3 ordu baino gehiago igarotzen denean:

- Amesgaiztoei egozten zaio.

- Negarrez eta ikaraturik azaltzen direlako antzeman daitezke.

- Kasu honetan, behar duten arreta eman behar zaie: kontaktu fisikoa beharrezkoa izaten dute, hori dela eta, eskua eman ahal diegu, esaterako.

- Honen arrazoiak anitzak izan daitezke (gauetan tentsio handiko bizipenak bizi izan dituztelako, telebista gehiegi ikusi dutelako, eskolara hasiko direlako...)

- Egoera hauetan, gomendagarria da:

- Inolako gaixotasunik ez dutela egiaztatzea. Izan ere, gaixotasuna agerikoa bihurtu arte, hau da, gaixotu aurreko egunetan, loak hartzea kostatzen zaie.

- Ez daitezela ohetik altxatu.

- Estutasuna badute lasaitzen saiatu: masaila laztanduz, lasaitasuna transmititu.

- Gau erdian itzartzuz gero, ez zaitezte beraiekin jolastu. Horrela jokatzuz gero, gau erdian itzartzea jolas bilakatu daitekeelako eta jokaera dibertigarri bat bezala hautemango dutelako.

- Beraien alboan izan, loak hartzen duten arte. Hau da, modu pausatuan lo gelditu arte beraien alboan egon zaitezte, minutu batzuek bada ere. Gaixotasuna luzatzen bada (egun batzuk irauten badu), logelatik gero eta arinago irten zaitezke, beraien alboan denbora gutxiagoz egonik.

0-5 urte. Dormir bien: hábitos para regular el sueño infantil



DRA. AINHOA MANZANO FERNÁNDEZ
DR. JUAN LUÍS MARTÍN AYALA

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia

Los niños y las niñas necesitan dormir más que los adultos. Si no duermen ni descansan durante la noche, se levantarán irritables, poco cooperativos y malhumorados. Dormir es fundamental para un desarrollo satisfactorio. El momento de ir a dormir debe ser considerado como una "rutina" dentro de la dinámica familiar diaria.

Existen unas reglas básicas para poner en práctica el "buen dormir":

1. El ambiente debe ser tranquilo y oscuro.
2. La hora de levantarse y la de acostarse debe ser, aproximadamente, la misma todos los días.
3. La temperatura de la habitación debe ser confortable. El excesivo calor o frío favorece el despertar nocturno.
4. No enviarles a la cama con el estómago demasiado vacío o lleno.
5. Deben aprender a dormirse sin intervención adulta. Es adecuado utilizar elementos externos (un muñeco) que ayuden a dormir con más tranquilidad.
6. Evitar la actividad física intensa aproximadamente una hora antes de acostarles.
7. Evitar las siestas muy prolongadas o tardías.
8. La siesta es aconsejable mantenerla, por lo menos, hasta los 5 años. De esta manera, se evitará que estén demasiado cansados por la noche y ese cansancio les impida conciliar bien el sueño.
9. Deben utilizar la cama sólo para dormir, no dejar que jueguen o vean la TV en ella.
10. Intentar que duerman siempre en su cama y no en otros lugares (sofá, cama de los padres y madres).
11. Evitar que tomen bebidas con excitantes en horas próximas a las que se vaya a dormir (cola, café, té...).
12. Si al comer se adormecen, entretenerles para que no se duerman.
13. No administrarles somníferos.

Por otra parte, hay niños y niñas que tienden a despertarse a lo largo de la noche:

Cuando el tiempo desde que se acuestan o duermen es inferior a 30 minutos:

- Se asocia al periodo de transición del propio sueño.
- Se caracteriza porque: se despiertan, lloran exigentes, piden cosas...
- En este caso las pautas son:
 - 1.- No debe haber presencia paterna o materna.

- 2.- No acercarse a prestarles más atención.
- 3.- No darles más alimentación aunque lo pidan.
- 4.- No atender todas las demandas.

La razones, en estos casos, suelen ser, por el propio temperamento, o porque para dormirse necesita contacto corporal con un elemento externo (facilitar muñeco...)

Cuando el tiempo desde que se acuestan o duermen va de 60 a 90 minutos.

- Estaría asociado a las denominadas "Parasomnias" que son terrores nocturnos (más frecuentes a partir de los 3 años) y al sonambulismo.
- En estos casos los niños y niñas se caracterizan por un estado semidormido, desconectado, agitado, los ojos saltones...
- Las razones suelen estar asociadas a: antecedentes familiares, cambios de ritmo del sueño, menos horas de sueño y/o enfermedad.
- La mayoría de las veces, estas alteraciones nocturnas forman parte del desarrollo normal.

Cuando el tiempo desde que se acuestan o duermen es superior de 3 horas:

- Estaría asociado a las Pesadillas.
- Se caracteriza por que están asustados/as y lloran
- En este caso se debe de dar la atención necesaria, de contacto, por ejemplo, cogiéndoles de la mano
- Las razones, pueden ser múltiples (porque hayan vivido una tensión diurna, por exceso de TV, por el inicio de la escolarización...).
- En estos momentos se recomienda:
 - Comprobar que no tengan ninguna enfermedad. Si están incubando alguna enfermedad pueden tener problemas para conciliar el sueño varios días antes de que ésta sea evidente.
 - Evitar que se levanten de la cama.
 - Tranquilizarles si tienen angustia: acariciándoles la mejilla intentar transmitirles calma.
 - No jugar si se despiertan en plena noche. Con ello solo conseguiremos que despertarse en plena noche les parezca un juego divertido.
 - Quedarse a su lado hasta que se duerman. Es decir, permanecer unos momentos a su lado hasta que hayan conciliado el sueño. A medida que se avanza en el tiempo ir saliendo un poco antes de la habitación.

6-11 urte. Gatazken konponbidea: gurasoen laguntzan eta haurren autoerregulazioan oinarritutako ikasketa



ALEX MUELA

Psikoterapeuta

EHUko Psikologia Fakultateko Irakaslea

Haurren garapenean gurasoak gehien kezkatzen dituen alderdietako bat beren seme-alaben gizarte-gaitasuna eta gatazkak konpontzeko gaitasuna da. Kezka hori 6 urtetik aurrera areagotu egiten da, eta, batez ere, nerabezaroarean eta nerabezaroan.

Gaur egun, gurasoek beren seme-alaben gizarte-gatazkak kudeatzeko duten gaitasunean nolabaiteko atzera egitea bizi dugu. Horren lekuko dugu askotan iristen zaizkigun berriak edo guk geuk ikusten ditugun egoerak; hau da, berdinaren arteko gatazkak, askotan, gurasoen arteko eztabaidan bukatzen dute, bizilagunaren semea/alaba lotsagabea, liskartia edo antisoziala dela argudiatuta; edo helduen arteko borroka bizian bukatzen dute, inolako lotsarik gabe leku publikoetan egiten direnak; edo, are okerrago, berdinaren arteko arazoak, azkenean gurasoek jarritako salaketan bukatzen dute.

Ukaezina da, oro har, indarkeria gehiegi duen gizartean bizi garela. Gatazkak ez dira, oro har, behar bezala konpontzen, eta askotan gatazka horiek epaitegietan bukatzen dute, eta gurasoak halako ereduarekin eta prozedurarekin kutsatzen dira. Hala ere, heziketaren ikuspuntutik, halako jarrerekin nahiz eta gurasoek beren seme-alabak babesteko borondate ukaezina erakutsi, haurrak edo nerabezaroak halako gizarte-zailtasunei aurre egiteko izan beharko lukeen gaitasun pertsonala murrizten duen eredura jotzen dute gatazkak konpontzeko. Halaber, mekanismo judizialak aktibatzen direnean, oso gutxitan ekartzen dute mekanismo horiek norberak nahi lukeen bukaera, eta gainera, horren aztarna geratu ohi da haurraren eta familiaren.

Horrela, bada, artikulu honetan saiatuko gara gatazkak konpontzeko oinarritzko eredu bat ezartzen. Oinarria gurasoen esku-hartze pedagogiko goiztiarra izango da, gurasoen sostenguan eta haurraren autoerregulazioan errotua. Saiakera egiteko gonbidapena luzatzen dizuegu. Eredu horren arabera, gatazka behar bezala konponduko badugu, honako oinarritzko lau jokabide-arau bete beharko ditugu:

1. Lasaitasuna berreskuratzea. Gatazka-egoeretan, biologikoki, mehatxuaren aurrean defentsa izaerako aldaketa fisiologikoak aktibatzen diren joera izaten dugu (bihotz-taupadak bizkortzen dira, gorputza gogortzen, eta abar). Haurrak fisiologikoki lasaitasuna berreskuratzea beharra dauka, eta horretarako, ezinbestekoa da

aipatu aldaketa horiek kontzienteki desaktibatzen ikastea. Gurasoek ezarriko duten eredu funtsezkoa da ikasketa horretan.

2. Elkarrizketa kooperatiboa bultzatzea. Alegia, txandaka, bi

haurrek buruan dutena eta sentitzen dutena adierazten jakin behar dute beren kabuz, eta solaskideak, berriz, entzute aktiboa egin beharko du. Gurasoak edo hezitzaileak bigarren mailan egongo dira, gatazkan dauden haurrek burutu beharreko eginkizunean tartean sartu gabe, eta bitartekotza egin gabe.

3. Konponbiderako ekintzak. Bi haurrek, helduaren bitartekaritza egin gabe, arazoa nola konpondu pentsatu behar dute. Bakoitzak adierazitako proposamena baloratuta, biak gogobeteko dituen aukera abiarazi beharko dute. Logikoa da pentsatzea fase hori nekeza izango dela; hala ere, garrantzi handikoa da heldua tartean ez sartzea, nahiz eta

prozesuaren begirale izan beharko duen. Askotan, helduok hartzen ditugun erabakiak ez dira egokienak, eta haurrei gaitasuna kentzen diete gatazkak konpontzeko beren mekanismo propioak abian jartzeko. Haurrek heldua tartean sartzea eskatzen badute, helduak entzun egingo du, eta, ondoren, gatazka beraiek bertan konpondu behar dutela adieraziko die. Gatazka konponduta, helduei jakinaraziko diete zein den adostutako konponbidea.

4. Adostutakoa martxan jartzea. Ezinbestekoa da haurrek ulertzea adostutako neurriak gauzatu egin behar direla. Urrats hori garrantzi handikoa da, hitzetatik ekintzetara pasako baikara. Haurrek kontuan hartu behar dute hartutako konpromisoak iraunkorrak direla, eta erantzukizuna eskatzen dutela.

Azken finean, deskribatutako metodoaren helburua da haurrak gatazkak konpontzerakoan bereziki eraginkorrak izatea, eta berdinekin sentikortasunez eta heldutasunez komunikatzea. Metodologia hau hiru urtetik aurrera aplikatu daiteke, bai familian bertan, bai eskolan. Bai anai-arreben arteko bai berdinaren arteko harreman gatazkatsuetan. Esperientziak argi erakusten digu aipatu metodologia ulertzen eta ezartzen duten haurrak goxoak, kooperatiboak, gizarte-harremanen aldekoak izan ohi direla; nekez oldarkorrak.



6-11 años. Resolución de conflictos: un aprendizaje basado en el apoyo parental y la autorregulación de los niños



ALEX MUELA

Psicoterapeuta

Profesor de la Facultad de Psicología de la UPV

Un aspecto del desarrollo de los niños y las niñas que más preocupa a los padres es la competencia social y la capacidad de resolución de conflictos de sus hijos. Preocupación que se incrementa a partir de los 6 años de edad y, sobre todo, en la preadolescencia y adolescencia.

En la actualidad estamos asistiendo a una especie de involución en el área de las competencias de los adultos para gestionar los conflictos sociales de los hijos. Prueba de ello es que en muchas ocasiones nos llegan noticias o somos testigos de como muchos de los conflictos entre iguales acaban en discusiones entre los padres sobre lo maleducado, agresivo o antisocial que es el hijo del vecino; en batallas campales entre adultos que se llevan a cabo sin pudor en lugares públicos; o lo que es peor, problemas entre iguales que finalizan en denuncias interpuestas por los padres.

Es innegable que en general vivimos en una sociedad con una excesiva carga violenta en la cuál es usual que los conflictos no se resuelvan adecuadamente y que en muchos casos éstos lleguen a judicializarse, y que los padres acaben contagiándose de este tipo de modelo y procedimiento. Sin embargo, desde el punto de vista educativo, con este tipo de conductas, aunque los padres muestren una voluntad innegable de protección de la prole, se recurre a un modelo de resolución de conflictos inadecuado que minimiza la capacidad personal del niño o del preadolescente para hacer frente a las dificultades sociales de este tipo. Asimismo, cabe señalar que cuando se activan mecanismos judiciales, rara vez tienen el desenlace deseado, por el contrario, la carga emocional para el niño y la familia tiende a dejar huella.

Así pues, en este artículo, vamos a tratar de sugerir un modelo básico de resolución de conflictos que principalmente se basa en la intervención parental pedagógica temprana, cimentada en el apoyo parental y en la autorregulación del niño, que les animamos a practicar. De acuerdo con este modelo, una adecuada resolución del conflicto implica llevar a cabo las siguientes cuatro reglas básicas:

1. Recuperar la calma. En las situaciones de conflicto, estamos biológicamente predispuestos a activar unos cambios fisiológicos de carácter defensivo ante la amenaza (el pulso se acelera, el cuerpo se acoraza, etc.). El niño ha de recuperar la calma a nivel fisiológico, para ello es necesario que aprenda a realizar una desacti-

vación consciente de dichos cambios. El modelado por parte de los padres es crucial en este aprendizaje.

2. Fomentar un diálogo cooperativo. Es decir, por turnos, ambos niños, por sí mismos, tienen que aprender a expresar lo que piensan y sienten, mientras su interlocutor muestra una escucha activa. Los padres o educadores se han de mostrar en un segundo plano, sin interferir ni mediar en la tarea que han de llevar a cabo los niños que han entrado en conflicto.

3. Acciones de resolución. Ambos niños, es decir, sin la mediación del adulto, han de pensar en cómo resolver el problema. Una vez que hayan valorado las propuestas sugeridas, tienen que poner en marcha la opción que satisfaga a los dos. Es lógico pensar que esta fase vaya a ser costosa, sin embargo, es necesario que el adulto no intervenga aunque se cuide de supervisar el proceso. En muchas ocasiones los adultos toman soluciones que no son las más adecuadas e incapacitan a los niños para que éstos pongan en marcha sus propios recursos de resolución de conflictos. En caso de que los niños requieran la participación del adulto, se les escucha, después, se les insta a que sean ellos mismos los que deben de solucionar el conflicto. Una vez que lo hagan, han de comunicar a los adultos la solución acordada.

4. Puesta en marcha de la medida acordada. Es necesario que los niños comprendan que las ideas adoptadas se llevan a la práctica. Este paso es muy importante ya que pasamos de las palabras a los hechos. Los niños han de considerar que los compromisos adoptados son duraderos e implican responsabilidad.

En definitiva, el objetivo del método descrito es conseguir que los niños sean especialmente eficaces a la hora de resolver conflictos y se comuniquen con los iguales de forma sensible y madura. Esta metodología puede comenzar a aplicarse a partir de los tres años ya sea en el marco familiar como escolar. Tanto en

el caso de las relaciones de conflicto entre hermanos/as como en las disputas entre iguales. La experiencia nos acentúa que los niños que entienden y aplican dicha pedagogía tienden a ser niños cálidos, cooperativos, prosociales, que rara vez son disruptores o agresivos.



12-18 urte. Norbera: Nerabeentzako eta familientzako programa bat



ALBERTO RUIZ DE ALEGRIA

NORBERA-ko Familia Hezitzailea

Norberaren xedea da arrisku egoeran, edota babesik gabe dauden 14 eta 18 urte bitarteko nerabeei eta hauen familiei sostengua ematea. Nerabeari eta honen familiari zuzendutako jarduera-plana proposatzen du, modu bateratuan eta koordinatuan lantzen dena. Egoerak bere osotasunean aztertzen ditu, eta arreta egiten die alderdi pertsonalei, familiakoei, harremanei, eskola/lanekoei eta ludikoei. Metodologia banakakoa eta taldekakoa da, eta nerabezaroan gertatzen diren gatazkak interpretatzen ditu. Arretaren oinarria da nerabeak eta bere familiak zailtasunei aurre egiteko duten gaitasuna.

Norbera taldeko profesionalen kalitatea, eta nerabe eta familia bakoitzarekin ezartzen duten loturaren hurbiltasuna dira ezarritako helburuak erdiesteko berme nagusia. Oinarri horretatik abiatuta, Norberak lantzen dituen ekintza ugariatik, honako hauek azpimarratuko ditugu:

• Nerabeei zuzenduak:

Banakako elkarrizketak: erreferentzia-hezitzaileak nerabe bakoitzari euskarri-puntu bat ematen dio, ulertze-jarrera enpatiko batean oinarritua, aldaketa sustatzea eta zailtasunak gainditzea errazte aldera.

Talde-ekintzak: talde ugari lan egiten du nerabeen adierazpena, parte-hartzea eta inizatiba sustatzen; horiek hausnarketarako eta jarrerak eta balioak analizatzeko estimulu izanik.

• Familiari zuzenduak:

Familiari elkarrizketa: gurasoen eginkizunak nola garatzen ari diren aztertzeko, eta seme-alabaren portaeran eragina izan dezaketen familia barruko dinamikei buruz hausnartzeko aukera ematen du.

Guraso-eskola: familien arteko topaketa bultzatzen du, entzutea eta jarreraren analisia bultzatzen du, eta guraso-trebetasunak garatzeko bidea ematen du.

• Biei batera zuzenduak:

Familia-topaketak: seme-alaba bere gurasoekin elkartzen den unea, izandako bilakaera baloratzeko, zailtasunez hitz



egiteko, eta, negoziazioaren bitartez, konpromisoak hartu eta adostasunetara iristeko.

Norbera eratu zenetik 12 urte hauetan, hobekuntza asko gehitu dira: diagnostiko-tresnak, talde-gai berriak, eskola-errefortzuko gela garatzea, laguntza psikiatrikoa, eta makina bat jarduera ludiko. Hobekuntza horiek esperientziak izan duen bilakaeraren, eta nerabeek eta familiek izan dituzten aldaketa soziologikoetara egokitu behar izanaren ondorio dira.

• Aldaketa soziologiko horren zertzelada batzuk honako hauek dira:

Nerabezaroa lehenago hasi eta geroago bukatzen da; horrenbestez, haurtzaroa laburtu egiten da, eta heldutasunerako bidea atzeratu egiten da. Jabetu gara gazteenak garai batean adin gehiago zuten neska-mutilen portaerak hartzen ari direla: alkohola eta bestelako drogak hartzea, ordutegia, aisialdiaren erabilpena, dirua...

Kontsumo-gizarteak, modu erakargarrian, nahasian eta nahita, etengabe helarazten die haurrei eta nerabeei hainbat ideia xeble; "izan zaitez zu zeu", "izan aske", eta halako bitxikeriez jantzita. Presio mediatiko horrek gehiago zailtzen du berez nahikoa konplexua den "nortasun bila" hori.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk dira: familia-eredu berriak (guraso bakarreko familiak, berriz eratuak, kide gutxikoak, helduak egunean zehar etxean ordu gutxi emandakoak, gurasoek -biek- lan egiten dutenak...), eta gurasoen agintea zalantzan jartzea. Gaur egun, gurasoek zentzu, maitasun eta koherentziaren bitartez lortu behar dute agintea. Eredua oinarri izango duen aginte morala.

Ondorio gisa esan behar dugu nerabeei eta familiei laguntzera bideratutako Norbera programak ezin duela bere lana garatu etengabe aldatzen ari den gizarte hau kontuan hartu gabe. Horrek esan nahi du aldizka metodologia berraztertu beharra dagoela; hau da, oinarri metodologikoei eutsi, formatan malguak eta teknketan eklektikoak izan, eta ekintzetan, berriz, berritzaileak.

12-18 años. Norbera: un programa para Adolescentes y Familias



ALBERTO RUIZ DE ALEGRIA

Educador familiar de NORBERA

La finalidad de Norbera es dar apoyo a adolescentes de edades comprendidas entre 14 y 18 años, que se encuentran en situación de riesgo y/o desprotección y a sus familias. Propone un plan de actuación al adolescente y a su familia que discurre de forma paralela y coordinada. Realiza un abordaje integral de las situaciones, prestando atención a aspectos personales, familiares, relacionales, académico-laborales y lúdicos. La metodología desarrollada es individual y grupal e interpreta los conflictos en clave de adolescencia. La atención parte de la confianza en las capacidades del adolescente y su familia para afrontar sus dificultades.

La calidad y cercanía del vínculo que los profesionales de Norbera establecen con cada adolescente y familia, es el principal activo que facilita la consecución de los objetivos que se establecen. Partiendo de esta base, entre el amplio abanico de actividades que desarrolla Norbera podemos señalar como las más significativas las siguientes:

• Dirigidas a los adolescentes:

Entrevista Individual: el educador de referencia, desde una postura de comprensión empática, brinda a cada adolescente un punto de apoyo con el objetivo de promover el cambio y facilitar la superación de las dificultades.

Actividades grupales: existe una amplia batería de grupos que están orientados a promover la expresión, participación e iniciativa de los/las adolescentes, sirviendo de estímulo para la reflexión y el análisis de actitudes y valores.

• Dirigidas a la Familia:

Entrevista Familiar: Oferta la posibilidad de revisar cómo se están desarrollando las funciones parentales, y reflexionar sobre las dinámicas internas de la familia que pueden estar influyendo en el comportamiento del hijo/a

Escuela de Padres/Madres: Favorece el encuentro entre familias, promueve la escucha y el análisis de actitudes y facilita el desarrollo de habilidades parentales.

• Dirigidas a ambos conjuntamente:

Encuentros Familiares: Momentos en que se reúnen el hijo/a con sus padres para valorar la evolución realiza-



da, hablar de las dificultades, y por medio de la negociación, establecer compromisos y llegar a acuerdos.

En los 12 años de funcionamiento de Norbera han sido muchas las mejoras que se han introducido: instrumentos de diagnóstico, nuevas temáticas grupales, desarrollo del aula de refuerzo escolar, atención psiquiátrica, así como un amplio número de actividades lúdicas. Estas mejoras han estado motivadas por la evolución derivada de la experiencia, y por la necesidad de adecuarse a las variaciones sociológicas que se han ido dando en adolescentes y familias.

• Algunas pinceladas de estas variaciones sociológicas son las siguientes:

La adolescencia comienza a edades más tempranas y termina más tarde acortándose la infancia y retrasándose el acceso a la vida adulta. Hemos percibido que los más jóvenes se están incorporando a comportamientos que anteriormente pertenecían a chicos y chicas de más edad: consumos de alcohol y otras drogas, horarios, uso del tiempo libre, de dinero,...

La sociedad de consumo somete a niños y adolescentes a un masivo bombardeo de mensajes que de forma atractiva, confusa e intencionada, les estimula hacia las peregrinas ideas de "se tu mismo", "se libre", "...". Esta presión mediática dificulta el ya complicado proceso de búsqueda de identidad.

Otro factor a tener en cuenta es la presencia de nuevos modelos familiares (familias monoparentales, reconstituidas, con pocos miembros, con poca presencia a lo largo del día de adultos en casa, en la que ambos padres trabajan...), así como el mayor cuestionamiento de la autoridad parental. Hoy, padres y madres deben ganarse la autoridad a base de sentido común, afecto y coherencia. Una autoridad moral, que reside en el ejemplo.

Como conclusión queremos señalar que un programa como Norbera que atiende a adolescentes y a familias, no lo puede hacer al margen de un contexto social que se va modificando constantemente. Esto significa revisar periódicamente la metodología, manteniendo los principios metodológicos, ser flexibles en las formas, eclécticos en las técnicas, e innovadores en las actividades.

Zalantzen Txokoa



Badira hiru hilabete bikotekidea eta biok banatu gara; bi urteko alaba eta lau urteko semea ditugu, eta nirekin bizi dira, baina aitarekin egoten dira arratsalde batzuetan eta asteburuan. Kezkatuta nago lau urteko semeagatik, azken aldian jarrera oldarkorra duelako, nirekin haserretzen da (askotan, nire ustez, arrazoirik gabe) eta asteburuan ez du aitarekin egon nahi. Zer egin dezaket?

Gurasoen banaketak zailtasun emozional ugari eragiten dizkio umeari:

- Gurasoak banatu direla onartu beharko dute eta horiek adiskidea ezinezkoa izango dela ulertzen hasi.
 - Haurrek uste dezakete beraiek direla gurasoak banatu izanaren arrazoia.
